

MODUZKOAK

-(E)LA(RIK)

-ELA - ELARIK , gutxienez, 3 esaldi mota desberdinetan erabiltzen da euskaraz:

- Esaldi konpletiboetan: "Joxe etorriko dela uste dut".
- Esaldi denborazkoetan: "Irakurtzen ari nintzela/nintzelarik lokartu nintzen".
- Esaldi moduzkoetan: "Kopetilun zetorren gure laguna, polizia batek besotik eusten ziolarik".

-ELA/-ELARIK MODUZKOA

Adibideak:

Gorritoak barrua jaten diola dago gizajoa.
Ez diote saririk eman eta negarra dariola dago .

Nola dago gizajoa?
Nola dago?

EZEZKOA BADA

Ezer jan nahi ez duela daukagu ume txikia.

Nola dago ume txikia?

LOTU ESALDI HAUEK -(E)LA ERABILIZ

1. Menditik bueltan zetorren. Poz-pozik zegoen. Nola zetorren menditik bueltan?

POZ-POZIK ZEGOELA ZETORREN MENDITIK BUELTAN

2. Lasai asko geunden. Berri txar hori jaso genuen. Nola geunden ?
3. Lo zorroan nengoen. Telefonoak jo zuen. Nola nengoen ?
4. Hor dago Jon. Zigarroa ahoan dauka. Nola dago Jon?
5. Pistola bat eskuan zeraman. Sartu zen. Nola sartu zen?
6. Ez ezazu hitz egin. Ahoa beteta daukazu. Nola ez hitz egin?
7. Eskuan makila neraman. Irten nintzen. Nola irten nintzen?
8. Zer egin ez dakit. Horrela nago. Nola nago?
9. Nondik hasi ez dakigu. Horrela gaude. Nola gaude?

MODUZKOAK

10. Nola ez dakigu. Dirua desagertu egin zen. **Nola desagertu zen dirua?**

11. Ez dio inori kasurik egiten. Kalean dabil. **Nola dabil kalean?**

ESALDIAK OSATU –(E)LA(RIK) ERABILIZ. Adibidean bezala egin. Ordenari eutsi

12. Hanka igeltsatuta dauka. Horrela dabil.

HANKA IGELTSATUTA DAUKALARIK DABIL

13. Eskuan ordenagailu bat zekarren. Horrela etorri zen etxera.

14. Ahoa beteta dauka. Horrela hitz egiten du beti.

15. Ez nekien hori guztia nola ikasi nuen. Horrela nengoen

16. Ez egnekien zer egin. Aste guztia horrela igaro genuen.

17. Bizkarrean motxila dakargu. Horrela gatoz.

18. Aitonak buruan txapela du. Horrela ibiltzen da beti.

19. Lapurrek pistola bana zeramaten. Horrela sartu ziren bankura.

20. Udanek eskularruak zeramatzan. Horrela sartu zen klasean.

21. Sararen alabak ez du ezer jan nahi. Horrela dago.